

SOLDATA-ARRAKALA ETA GENERO-ARRAKALAK LAN-MERKATUAN

(2021eko otsaila)

Prentsa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gaia Euskadiko gizon eta emakumeek lan-merkatuko soldata-arrakalari eta genero-arrakalei buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak izan da. Landa lana 2021eko urtarrilaren 21etik 26era egin zen

GENERO BERDINTASUNARI BURUZKO JARRERAK

Emakumeek desberdintasun maila handiagoa hautematen dute

Euskadin gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-mailari buruz dagoen pertzepzioa, 0tik 10era bitarteko eskalan, 6,3 puntukoa da, 0 "erabateko desberdintasuna" izango litzatekeelarik eta 10 "erabateko berdintasuna". Emakumeen balorazioa (6,0) gizonena (6,6) baino okerragoa da. Pertzepzio horrek hobera egin du 2012. urtearekin alderatuta, urte horretan 5,6 puntukoa izan zen, eta mantendu egin da 2015. urtearekin alderatuta.

Euskadiko lan-esparruko berdintasun-mailaren pertzepzioa aurrekoa baino pixka bat baxuagoa da, 6,1 puntu eskala berean, non berriz ere emakumeen pertzepzioa (5,7) gizonena (6,4) baino okerragoa den.

Inkestaturen gehiengo handi batek uste du berdintasuna bultzatzea garrantzitsua dela enpresentzat eta ekonomiarentzat (% 98 erabat ados edo ados), eta Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu beharko litzukeela gizonen eta emakumeen arteko soldata desberdintasunak murrizteko (%91; emakumeen %94k eta gizonen %89k).

LAN-MERKATUAN DAUDEN GENERO-ARRAKALAK

Emakumeen egoera gizonena baino txarragozat jotzen da

Gizonen zein emakumeen ustez, emakumeen egungo egoera gizonena baino okerragoa da lan-merkatuari lotutako hainbat alderditan, hala nola soldatetan (%68 oso edo zertxobait okerragoa), enpresetan ardura lanpostuetarako sarreran (%67), lana, familia eta bizitza bateragarri egiteko aukeretan (%66), lanean gora egiteko aukeretan (%64), lanpostuan egonkortasunean eta enplegua aurkitzeko aukeretan (%56 bi kasuetan). Emakumeen balorazioa gizonena baino negatiboagoa da aztertutako alderdietan, 10 puntu edo gehiagoko aldeekin, soldatei dagokienean izan ezik, hor aldea 5 puntukoa baita.

Emakumeak diskriminatuagoak sentitu dira lanean beren sexuagatik gizonak eurenerengatik baino, %5 oso sarritan, %7 sarritan eta %20 noizean behin; gizonak, berriz, %2, %2 eta %7, hurrenez hurren.

Euskadin dauden genero-arrakalei buruzko alderdi batzuen egiazkotasunari edo faltsutasunari buruz galdetuta, biztanleriak zuzen erantzun du planteatutako alderdi gehienei buruz: Euskadiko emakumeen batez besteko hezkuntza-maila gizonena baino baxuagoa da (%91k gezurra dela diote), legeak ezartzen du lan beragatik berdin ordainduko zaiela emakumei eta gizoni (%75ek baiezkota diote; emakumeen %72k, gizonen %77k), lanaldi partzialeko jardunaldi gehienak emakumeek betetzen dituzte (%71k asmatu dute, emakumeen %77k, gizonen %64k), goi-mailako ikasketak dituzten emakumeek maila bereko ikasketak dituzten gizonen adinako soldatak dituzte (%61ek diote faltsuak direla; emakumeen %64k eta gizonen %57k), emakume gehiagok lan egiten duten sektoreetan (adinekoen zaintza, merkataritza, garbiketa, osasungintza, etab.), gizonen eta emakumeen arteko soldata desberdintasunak handiagoak dira beste sektore batzuetan baino (%43k gezurra dela diote).

GENEROAREN ARABERAKO SOLDATA-ARRAKALA EUSKADIN

Soldatetan sexuaren araberako aldeak dauden pertzepzio nagusia, eta emakumeen kezka pertsonal handiagoa

Euskal herritarren %69k diote soldata-arrakalari buruz hitz egiten entzun dutela eta zer den badakitela, %17k horretaz hitz egiten entzun dutela, baina ez dakitela zer den eta %14k ez dutela horri buruz hitz egiten entzun. Gizonek diote emakumeek baino gehiago zer den dakitela (%76 eta %63, hurrenez hurren).

Emakumeen %79k eta gizonen %72k uste dute emakumei gizoni baino gutxiago ordaintzen zaiela lanorduko, Euskadin gizonek eta emakumeek betetzen dituzten lanpostu guztiak kontuan hartuta.

Herritarren %68k jakin dute egiazkoa dela gizonek eta emakumeek betetzen dituzten lanpostu guztiak kontuan hartuta; gizonen soldatak emakumeenak baino %20tik gora altuagoak direla. Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan baieztatzen dute hori: %75ek eta %61ek, hurrenez hurren.

Norbere enpresan edo erakundean gizonen eta emakumeen artean soldata-aldeak daudelako edo egon daitezkeelako ardura pertsonala handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (%61i ardura handia eragiten die, gizonen %53ren aurrez aurre). Halaber, gizonen %34 eta emakumeen %30 nahikoa arduratuta daude.

GENEROAREN ARABERAKO SOLDATA-ARRAKALA NORBERE ENPRESA EDO ERAKUNDEAN

Emakumeek uste dute generoen arteko soldata desberdintasunak daudela beren enpresan edo erakundeetan, gizonen baino neurri handiagoan

Lanean ari diren enpresan edo erakundeetan soldata-arrakalari dagokionez, %14ra jaisten dira emakumeek pareko posizioetan okerrago ordainduta daudela uste dutenak (emakumeen %18k eta gizonen %11k), %72k uste dute emakumeek eta gizonak berdin ordainduta daudela eta soilik %1ek uste dute emakumeek hobeto ordainduta daudela. Kopuruak 2018koen oso antzekoak dira.

Emakumeen %59k eta gizonen %68k uste dute beren enpresan nahikoa arreta jartzen zaiola generoen arabera soldata desberdintasunaren arazoari. Arretaren pertzepzioa hobetu egin da 2018. urtearekin alderatuta, %51tik gaur egungo %64ra.

Norbera enpresan edo erakundeetan gizonen eta emakumeen arteko soldata-alderik dagoela jakinez gero, %35 sindikatuekin harremanetan jarriko litzateke, %29 lankideekin eta %19 bere nagusiarekin. Emakumeek sindikatuekin harremanetan jartzearen zertxobait aldekoagoak dira, eta gizonak, berriz, lankideekin hitz egitearen aldekoagoak.

ERAKUNDEEN JARDUERA SOLDATA-ARRAKALAREN AURKA

Lanean genero-berdintasunerako legezko neurriak hartzearen aldeko gehiengoa

Gizon zein emakume gehienak lanean genero-berdintasuna bermatzeko legezko neurriak hartzearen aldekoak dira (%98 guztiz edo gehienbat alde). Zehazki, %81ek oso edo nahiko positiboki baloratzen dute, enpresak sexuaren arabera bereizita soldaten eta soldata-osagarrien erregistroa izatera behartzen dituen Errege Dekretua.

Euskadin soldata desberdintasunen aurka borrokatzeko egindako ahaleginen eraginkortasunari buruzko pertzepzioa 6,0 puntukoa da, 0tik 10era bitarteko eskalan, non 0 "batere eraginkorrak ez" eta 10 "oso eraginkorrak" izango liratekeen.

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%55) adierazi du ez duela entzun Euskadin Soldata-arrakala Murrizteko Estrategia eta Ekintza Planari buruz hitz egiten, laurden batek entzun du, baina ez daki zer den, eta %19k badaki zer den.

PANDEMIAREN GENERO ERAGINA LAN-MERKATUAN

Diru-sarreraren gaineko eraginaren pertzepzioa desberdina da gizonen eta emakumeen artean

Emakumeek banatuta daude COVID-19 pandemiak gizonen eta emakumeen diru-sarreretan duen eraginari dagokionez: eragin berdina izango du bien diru-sarreretan %48ren iritziak eta eragin okerragoa izango du emakumeengan %46ren iritziak. Beste %4k uste dute eragina okerragoa izango dela gizonen diru-sarreretan. Gizonen artean, aldiz, %62k bien diru-sarrerari berdin eragingo diela uste dute, %30k emakumei okerrago eragingo diela uste eta beste %6k uste dute gizonen kalte handiagoa egingo diela. Enplegu ordaindua duten pertsonen kolektiboan, emakumeen %52k uste dute eragin negatiboagoa izango duela emakumeen diru-sarreretan, eta gizonen artean, berriz, %30ek uste dute hori bera.

Pandemiak diru-sarrera pertsonaletan duen eraginari buruz galdetu denean, %63k adierazi dute ez direla aldatu, %16k asko edo dezente murriztu direla, %13k zertxobait, %3k dezente edo asko igo direla eta beste %5ek ez dutela diru-sarrerarik eta ez dutela izan. Diru-sarreretan izan duen eragin negatiboak 45 urte edo gutxiago dituztenei eragin die batez ere, eta neurri handiagoan gizonen emakumei baino.

Familia eta lana bateragarri egiteko pandemiak ez du eraginik izan herritarren %39rengan. Beste %35ek adierazi dute inpaktua negatiboa baina iragankorra dela, %18k negatiboa eta iraunkorra, eta azkenik, %6k positiboa.

Gizon eta emakume gehienak guztiz edo nahiko ados daude emakumeek beren osasunerako arrisku gehiago hartzen ari direnaren ideiarekin, funtsezko lanpostuetan presentzia handiagoa dutelako (%89), emakumeen proportzio handiena duten sektore ekonomikoetako lanak ez daudela behar nahikoa ongi ordainduta (%88) eta zaintza-lanen gizarte aitortza handitu egin dela (%79).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabalduta den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.200 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,89$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko urtarrilaren 21etik 26ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak